zuzendariari

(0034) 943 300 222

zuzendariari@egunkaria.com

Martin Ugalde kultur parkea 20140 Andoain

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

Haur eskolaren alde

Goio Sanz Arranz *(Larrabetzuko Haur Eskolaren aldeko taldeko kidea)*

2001ean Bizkaiko jaiotze-tasarik handiena izan genuen Larrabetzun, 12 jaiotza izanda; 2002an kopuru hori bikoiztu egin dugu, 25 ume jaio dira eta. Hori oso pozgarria bada ere, geurean arazo-iturri bilaka daiteke, herrian ez baitago inolako haurtzaindegirik, ez publiko ez pribaturik. Geure umeak, goizero, oso goiz ere, abiatzen dira Galdakaorantz, Mungiarantz edo Bilborantz, eta ez guztiak; batzuek ez dute plaza bat topatzeko zorterik izan. Eta, ondorioz, ama batzuek eszedentziak eskatu behar izan dituzte, eta beste batzuek lana utzi.

Panorama hori ikusita eta Eusko Jaurlaritzak lau haizeetara botatako famili-planak entzunda, hasi ginen biltzen urte honen hasieran, egoera aztertzeko eta irtenbideak bilatzeko. Ordura arte bildutako informazioaren arabera, bazirudien haur hezkuntzaren ezarpena herri guztietan denbora kontua baino ez zela, baina geure kezka zen Larrabetzun genituen zerbitzuak ikusita (*zero patatero*) ez ote ginen azkenak izango. Eta erabaki genuen zer edo zer egitea. Hauxe da orain arte egindakoaren laburpena:

–Haur eskolaren aldeko sinadura bilketa. 200 sinadura baino gehiago, horietatik 40 baino gehiago zerbitzuaren beharra dugunok eta laster izango dutenak.

–Sinaduren kopia eta eskutitz bat bidali Larrabetzuko alkate eta zinegotzi guztiei, eta Hezkuntza, Nekazaritza, Justizi eta Gizarte Arazoetako sailetako sailburu, sailburuorde, zuzendari eta abarrei. Hezkuntzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzari ere bai (Gaizka Gabantxori). Beste aldetik, Foru aldundiko hainbat departamenturi eta Eudeli. Erantzun gutxi. Irtenbiderik bat ere ez!!

–Alkatearekin bildu ginen, laguntza eskatzeko, susmatzen genuelako Jaurlaritzaren jarrera izango zela funtzionatzen zuena diruz laguntzea, eta, beste herrietan egin duten bezala, hemen ere, «udal haurtzaindegi» bat muntatzea momentuz, lehenbailehen Jaurlaritzak bere esku har zezan...Bere erantzuna, ezezko borobila, Eudelen omen dago, eta Eudelek ezetz dio, besterik gabe.

–Muxika, Etxebarri, Abadiño eta Dimako esperientziak ezagutu eta aztertu ditugu. (Muxikan ere, Eudelen daude, baina muntatu dute udal-haurtzaindegi bat, 2 umerentzat!)

–Haur-eskola martxan ipintzeko baldintza fisikoak aztertu: 1004/1991 Errege Dekretuan agertzen direnak.

–Eraikinak egokitzeko laguntzak aztertu: 2002ko abuztuaren 30eko aginduan 1.322.227 euroko laguntza eskaintzen da EAEko udalentzat.

–Nolabait lana aurreratzen joateko, guraso elkartearen eta eskolaren bitartez, haur eskolaren kokapen fisikoaren azterketa eta txosten teknikoa eskatu genion alkateari. Momentuz erantzunik ez!

–Azkenengo baserriko produktuen azokan, geure ekintzen eta eskaeren informazioa banatu genuen herrian.

–Gabonetan ere kalera atera ginen. Kontzentrazioa egin genuen udaletxearen aurrean. Lanean jarraitzen dugu eta, orain ateratako dekretuan agertzen denez eskaintza publikoari eta batez ere eskaintza ez duten eskualde eta herriei lehentasuna emango zaiela, uste dugu geure txanda heldu dela eta gutxi barru geure haur-eskola izango dugula. Hala bedi.

montxo



galdeiozu...

TXUS JAIO

Auto gidaria

Carlos Sainzen babespean urte batzuk egin dituzu. Zer-nolako esperientzia izan da munduko txapeldun baten ikasle izatea?

Iñaki Aldazabal (Donostia)

1998tik iaz arte egon ginen talde berean. Esperientzia zoragarria izan da. Urteotan egin dudana eta irabazi ditudan lasterketak, hein handi batean, Carlos Sainzek erakutsitakoari esker izan dira. Horregatik, eskerrak ematea besterik dut.

Urtarrilaren 21etik aurrera **Natxo de Felipe • Oskorriko abeslaria** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.

hirusta

Jon Benito

Negurako aterpea

Literatur kritiko zenbaitek ez dute maite poetaren epika. Aberatsek pobrearen ametsak errefusatzen dituzten bezala gorroto dute ezinduaren epika. Garaiak ez dira sobera aldatu. Etikarik gabeko gerra kontestu batek besterik ez dezake iheslari baten etxeratzea ekidin. Oztopo horren konplize dira gobernuko bozeramaileak, barne ministroak, epaile arrotzen debekuak.

Duela aste bi iragarri zuten berria, Donostian: hamar iheslarik egingo zutela etxerakoa egunotan. Eta lagunen bidez dakigu atzo zirela egitekoak ongietorri bilkurak iheslarien herrietan. Ederra da zilueta baten atzean zegoen erretratuaren aurpegia ezagutzea, sentitzeko bihotz bat, ibiltzeko zangoak eta ukitzeko eskuak ezartzea ezezagunari. Lagun batzuk, familia bat eta igaro zituen momentu eta lekuen memoria bat itsastea gorputz horri. Izen bat, estatistika zenbaki bat baino gehiago direla ahazten zaigulako sarritan.

Berrogei urterako kartzela zigorrak iragarri ditu Espainiako Barne ministroak zigor kodearen erreforma aurreratzean. Datozen berrien arabera, negurako aterpea bilatzea geratzen zaigu. Ez zaizkigu gustatzen berri txarrak. Goizaldean atzerrietan atxiloketak egiten direnean, izena, adina eta herritartasuna ezagutzera jotzen dugu larriki. Euskal Herria, muga eta oztopoak baino gehiago, batasun sentimendu bat dela sinesten dut inoiz baino gehiago. Gure artean falta diren pertsonekin banatzen dugun sentimendu bat. Ez administrazio hotz bat, postal turistiko bat edo ikur bat. Euskal Herria negurako aterpea da, maite dugun jendea. Horregatik dakigu estimatzen pobrearen ametsa, ezinduaren epika moderatua eta egoerak behartuta ditugun hutsuneak. Etxea zutik dago, eta atea zabalik uzten dugu, itzultzen zaretenerako.